

BITTOR EGURROLA, KANTARI BAT



Kantari berri bat gure aurrean. Jokabide konkretu batekin dator, beretasun bat ba du estiloan, zerbait ezagutarazi nahi digu. Herriari begiratzen dio.

Gernikakoa da, «erre behar dan» Gernika hortan jaioa, berak diñoanez.

—Zure izena, lehengo aldiz-edo, asko ez dela entzun nuen. Sari bat eman zizuela uste dut.

—Bigarren saria hain zuzen, bai-

na oso pozik nago herriaren botoa zelako. Horrek poztu mindun. Bilbaon izan zen.

—Denbora asko al da kantatzen zabilzala?

—Ez, askorik ez. Bost hilabete. Oraindik hasi berria naiz.

—Ibilaldi asko egin al dituzu?

—Batzuk bai. Lehengo aldiz Oiabarrin, Bizkaiko herri txiki baten abestu nuen, gero Yurren. Durango aldean lau aldiz izan naiz.

Gernika aldean birritan. Zeberion ere bai.

—Bizkaitik ez al duzu irten?

—Bai, behin; Gipuzkoan Atandik sartu naiz, asko ez dela izan nintzan han-eta.

—Eta, guztira, zenbat aktuaño edo ekitaldi egin dituzu?

—20-tik gora.

—Ta ibili zeran herri hoietan ze giro somatu duzu?

—Herriaren aldetik oso giro ona dago, zai daukagu jendea. Ba liteke herriak euskeraz kantatzen dugulako onartzea, ta ez ondo abesten dugulako.

—Kantutik kanpora zer egin oit duzu?

—Deustun ari naiz ikasten. «Ciencias sociales»-ko lehengo urtea, alegia.

—Ezagun da zure abeskeran, bai. «ciencias sociales» ikasten zaudela, han ikasitako problema hoiiei doinua ipini egiten baidiezu. Hitzaren alderditi hori da zure kantua, ene ustez.

—Ba liteke.

—Kantakerakin gaudenez gero, esaiaguzu ea zer eman nahi ote zenuken aditzera zuk.

—Nere hitzak, gogorak dira. Baina gogortasun horren barruan zenbait pondu aukeratu dut, kapitalismoa, gizon euskalduna direlarik, behar bada, garrantzi handieneakoak.

—Horregatik hasi ote zinan kantatzen?

—Bai. Ba nuen gogoia barruan nituen gauza batzuk azaltzeko. Horarako kitarra instrumentu egokia izan nuen. Ta Labegieriei entzun nioanean, ta ostantzean ere bai, animatu egin nintzan, ta kitarra tresna egokia irudituz zizaidan mandatu bat emateko, norberaren sendimenduak agertzeko. Naizta txistua ta besteak Euskal Herrikoak izan. Beraz, bidetzat hartu nuen kitarra.

—Diozunez, kitarra bide bat besterik ez da herriari eman nahi dio-

zun mensaje hori gauzatzeko. Ikus dezagun, orduan, zure iritzian, doinuak inportantzirik baduen.

—Ba dakit batzuk uste dutela euskaldunak letzari inportantzi osoa ematen goazela, musikaren kaltetan. Ba liteke, Orain nik, gaurko gure egoeran, ez nioke emango letzari inportantzi gehiago, baina musikari ere ez; neretzako, ipinez gero «tanto por ciento» bat, ez noa musikari ematen besteari baino gehiago.

—Ta zure mandatu hori euskal Herrian adierazteko, zenbat kantu darabilzazu?

—Sei. Ta gehien-gehien, hauek: «Geroa», «Umezurtza», «Gernikako Arbola», «Nire eskaria».

Eta ene ustez, nere estiloa ta jokabidea ulertzeko beharrezko da azkenengo honen hasierako bi estrofa hauek ezagutzea:

«Ni enaz artista

Ni enaz gitarrista

Ni naz erritarra

zugaz alkarrizketan asteko

gitarra bidetzat

artun dabena...».

«Ez etorri nigana arte-eske

ez etorri nigana berba politen es-

ke.

nire gitarra ez da nire gitarra

nire gitarra da:

nire erriaren bizia

nire erriaren ritmoa».

—Argitaratu ote duzu diskorik?

—Ateratzen ari dira Cinsakoak.

Best kantu dituz zensurara bialduak.

—Lehentxeago, zure «estiloa» aitatu duzu. Zernolako da bera?

—Ez dakit. Neuk, neuretarra, ikasia da. Kritikalarik batek juzga dezaidala.

—Musika hori nola egin oit duzu?

—Jarten naiz hortara, ta eginez-eginaz gogoan ta buruan geratzen zaidana, hura da ona hura aukeratzeko. Askotan hiru ritmo ere aldatu ditut kantu berean.

—Zer gura zenuke izan euskal



doinuaren barjuntian, egilea, interpreteta, edo zer?

—Ez dakit, hasieran nago. Gerorak esango du.

—Epailari ona da, izan ere, geroa. Harek neurtu oi ditu balioak. Zure aldea atera dedila epailari hori. Bittor.

JOAN MARI TORREALDAY



KIROLA TA POLITIKA

Bein da berriro Olinpiada jokuak bukatu zaizkigu. Ainsteste neke ondoren kirolariak itzuli zaizkigu. Batzuek pozik datozkigu, izan ere euren markak hobegotu dituzte. Besteak berriz, lur jota, euren ametsak deusez-tuak, egi bihurtu ez diralako. Aurrerantzean, asmo berriak, azterketa sakon baten ondoren, bide berriak artuko omen dituzte. Nere iritziz, dana oraindaiño bezela jarraituko du.

Nere asmoa ez da olinpiadan egiñikako saioa kritikatzeta, beltzak eman diguten lezioa agertaraztea baiño. Izan ere, arrigarria izan da benetan aurrean eman diguten erakusbidea. Laisterketa jokuan, eta saltoan egin duten marka (8,90 m) hobegotzen gaitz izango dala ziur gaude. Zelakoa ote da, gizonak berekin duan muga? Markak hobegotzeak bere amaiera noiz izango ote du? Egun, kirolaria, hobeto gertutzen da, teknika, medizina, bio-

logia, t.a. gehiago, ezagunago zaizkigu; len ez bezelakoa da kirol giroa, ta berari eman ohi zaion garrantzia. Bide hontatik jarraituz, noraino iritxiko gero? Ona hemen galdera, askatu beharreko arazoa.

Beltzak kirol maillean lortu dutena pozgarria bada ere, batez ere erakutsi duten gizontasun eta herriarekiko maitasunak askoz gehiago poztu nau. Euren sariak jasotzeko une horretan, txalo ta ohoreak ez ditu itxutu, bere anaiek gogoan izan dituzte, euren arteko sufrimientua erakusteko ez dute bildurrik izan. Une oro, gizalegez bizitzeko ukatzen zaien eskubidea egi eta errealdade izan dedilla besterik ez dute nahi.

Amerikar beltzak planteaturik daukaten prolemaz ez dira ahaztu. Arazo bihurria, lan neketsua, ekintza gogorra, amaigabeko burruka, danak elkar-turik, justizi ta askatasuna maite dute, gizaki diranez, gizalegez bizitzeko gizarte egokia. Carlos, Smith ta zuzentasun bideari ekin diozuten guztiori, bejondeizutela nere zorionik beroena. Olinpiadak eman zezakean meda-llarik ametsgarrienak ere ez dute zuen biotz gogoak betetzen, kirolaritzza baiño gizatasuna gehiago maite duzute.

Ados nago, eta batera nator, berez kirolak eta politikak zer ikusirik ez dutela dioten hoiekin. Kirolari trebeak izanagatik politikulari izan ditezkeanik pentsatu ere ez degu egiten, kirola ta politikaren zeregiña desberdina bai da.

Orduan zer dala ta, beltz hauen jokabidea txalotu? Zergatik, anaitasun giroan elkartzen diran une horretan saltsa eta ixkanbilla sortarazi? Zertarako kirolaren garbitasuna zer ikusirik ez duten arazoekin zikindu? Honela amaika galdera triste egin izan dute, beltzen postura dala bide.

Norbaitek gosea badu, bere eta bere etxekoentzat ogia eskatzen du, nor bera lasaiki eta kezkarik gabe bizi bazitekean ere, etxeaz ez da ahaztuzten, guraso eta anai-arrebaen egoerak ez dio pake unerik eskeintzen. Hori da beltzak ta bere jarraitzaileak egin dutena, eskabide berezia erantzunaren zai itzaropenez besterik daude. Baiñan ez pentsa gero, limosnarik eskatzen digutenik, ez, beltzak, herri diranez, aukerabide osoaren jabe izate besterik ez dute nahi, orain artean ukatu zaien eskubidea eurganatazea. Ez limosnarik, ez karidade faltsurik, justizi ta zuzentasuna baizik.

Deia egiña dute, eta erantzunaren zai daude. Baiñan zelako erantzuna?

Bere kozkak eta sentimenduak geureganatzea, eta egiteetan erakustea degu erantzunik egokiena.

Horrela ez bada, kirolariak txalotu, eta sortarazi dituan herria zapal-teza, ez dira inoiz ere, biek batean onartu ditezken posturak.

MIKEL UGALDE

Arrigarrizko Salmenta!!!

Lekua berritzeagatik

Lo-gela osoak illen 500 pezetatik gora. Irukoitzak, sofa-ogeak, besaulkiak, abar...

Guzia erdi prezioan

Amuebladora Comercial
Hispania, S. L.

Moraza, 3
SAN SEBASTIAN

San Marcial, 12
IRUN

ECHABE

ETXABE REN

Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 24

ZARAUTZ